

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 80/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko urtarrilaren 14koa, Erreserba-sistema informatizatuentzako jokabide-kodea ezarri eta Kontseiluaren 2299/89 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) N<sup>o</sup> 80/2009 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 14 de enero de 2009, por el que se establece un código de conducta para los sistemas informatizados de reserva y por el que se deroga el Reglamento (CEE) n<sup>o</sup> 2299/89 del Consejo» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 35/47 de 4/2/2009)

**80/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2009ko urtarrilaren 14koa,**

**Erreserba-sistema informatizatuentzako jokabide-kodea ezarri eta Kontseiluaren 2299/89 (EE)  
Erregelamendua indargabetzen duena**

**(Testu egokia EEEri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaz aztertu dute, bereziki, Tratatuaren 71. artikulua eta 80. artikuluen 2. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin zaio,

Datuen Babeserako Europako Ikusatzailaren irizpena aztertu dute [2],

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [3],

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) 1989ko uztailearen 24ko Kontseiluaren 2299/89/EE Erregelamendua, erreserba-sistema informatizatuentzako jokabide-kodea ezartzen duena [4], ezinbestekoa izan da hegazkin-konpainiei erreserba-sistema informatizatuen (hemendik aurrera "ESI" deituko duguna) baldintza zuzen eta inpartzialak bermatzeko, modu horretara kontsumitzaileen interesak babestuz.

(2) Aireko garraiorako erreserben zati handi bat SIRaren bitartez egiten da.

(3) Teknologiaren eta merkatuaren garapenari esker, Erkidegoko markoa nabarmen sinplifika daiteke, modu horretara sistemen saltzaileei eta hegazkin-konpainiei erreserba-eskubideak eta tarifei buruzko informazioa negoziatzeko malgutasun gehiago eskaintzen baitzaie. Hori horrela, hegazkin-konpainiak erraz moldatuko dira bidaia-agentzien eta kontsumitzaileen beharretara eta eskaeretara, eta orain artekoa baino eraginkortasun handiagoz banatuko dituzte beren garraio-produktuak.

(4) Hala ere, gaur egungo merkatuaren testuingurua dela eta, lehiakortasunaren aurkako gehiegikeriak saihesteko eta kontsumitzaileek informazio neutrala jasotzen dutela bermatzeko, beharrezkoa da ESIei buruzko hainbat xedapen mantentzea, kontuan hartzekoa baita beren baitan garraiorako produktuak biltzen dituztela.

(5) Konpainia nagusiek ordutegiei, tarifei eta erabilgarritasunari buruzko informazioa ukatzen diete berenak ez diren sistemei eta ez dituzte onartzen sistema horien bitartez egindako erreserbak, eta horren ondorioz, ESIen arteko lehiakortasuna faltsutzen dute.

(6) Ezinbestekoa da konpainia parte-hartzaileen eta konpainia nagusien arteko lehiakortasun eraginkorra mantentzea, eta ESIetan parte hartzen duten edo ez kontuan izan gabe, hegazkin-konpainien arteko diskriminazio ezaren printzipioarekiko errespetua bermatzea.

(7) Merkatuan lehiakortasun-baldintza gardenak eta alderagarriak bermatze aldera, konpainia nagusiek arau zehatz batzuk bete behar dituzte.

(8) Sistemen saltzaileek hegazkin-konpainien ESIen eta barneko erreserba sistemen, edo bestelako edozein sistemaren arteko bereizketa argia egin behar dute, eta ez diete konpainia nagusiei banaketarako bitartekorik erreserbatuko, modu horretara konpainia nagusiek ESIrako sarbide pribilegiatua izatea saihestuko baita.

(9) Kontsumitzaileen interesak babesteko ezinbestekoa da ESIen erabiltzaileei hasierako aurkezpen inpartzial bat eskaintzea eta hegazkin-konpainia guztiei buruzko informazio bera eskaintzea, sisteman parte hartzen duten konpainia batzuei, besteen kaltetan mesede egitea saihestuz.

(10) Aurkezpen inpartzial bat erabiltzeak sisteman parte hartzen duten konpainien produktuen eta zerbitzuen gardentasuna eta kontsumitzaileen konfiantza areagotzen ditu.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(11) Sistemen saltzaileek ESIaren datu komertzial guztiak jarri behar dituzte bertan parte hartzen duten konpainien eskutan, inolako diskriminaziorik gabe, eta garraio-zerbitzuak eskaintzen dituztenek ezingo dituzte datu horiek erabili bidaia-agentziaren eta kontsumitzailearen aukeraketan zilegi ez den moduan eragiteko.

(12) Harpidedunek eta saltzaileek datu informatiko komertzialen zintei ("MIDT") buruz hartutako edozein erabakik bere baitan har dezake harpidedunen aldeko konpentsazio-sistema bat.

(13) ESIaren aurkezpenetan tren-zerbitzuei eta, aire- eta tren-zerbitzuei buruzko informazioa eskaini behar da.

(14) Erkidegoan aireko zerbitzuak ustiatzeko arau bateratuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko irailaren 24ko Erregelamenduari [5] jarraituz (bertsio bateratua), hegazkin-konpainiek derrigorrezkoak eta aurreikusteko modukoak diren zergak, tasak, errekaratuak eta kanonak gehituta argitaratu behar dituzte beren tarifak. ESIen aurkezpenetan kategoria bereko tarifa orokorrei buruzko informazioa eskaini behar da, modu horretara bidaia-agentziek informazio hori beren bezeroei jakinaraziko dietela bermatzen baita.

(15) Hemendik aurrera aireko garraioentzako autobus-zerbitzuei buruzko informazioa edo aireko garraioaren baitan sartzen den trenbideko garraioari buruzko informazioa aipatu behar da ESIen aurkezpen nagusian.

(16) Hemendik aurrera ESiek hegaldian sortutako CO<sup>2</sup> isurketei eta erregai-kontsumoari buruzko informazio ulergarria eskaintzea sustatu behar da. Informazio hori eskaintzeko, pertsona bakoitzak 100 km-ko kontsumitzen duen erregai-kopuruari (litroak/100 km-ko) eta kilometroko isurtzen duen CO<sup>2</sup> kopuruari (gramoak/km-ko) dagozkion datuak eman daitezke. Horrez gain, bost ordu baino gutxiago irauten duten bidaietan, trenez edo autobusez bidaiatzeko dauden aukera onenei buruzko informazioa ere eskaini daiteke.

(17) Erkidegoko eta hirugarren herrialdeetako hegazkin-konpainiek tratu bera jaso behar dute, ESiek eskaintzen dituzten zerbitzuei dagokienez.

(18) Erregelamendu honen funtzionamendu egokia bermatzeko, Batzordeak egokiak diren egikaritze-eskumenak izan behar ditu, besteak beste, ofizioz edo salaketa bat bitarteko, arau-hausteak ikertzeko aukera, eta arau-hauste horiekin zerkusia duten enpresei egoera horrekin amai dezatela eskatzeko eta isunak jartzeko eskumena.

(19) Batzordeak aldizkakotasun jakin batez kontrolatuko du Erregelamendu honen aplikazioa eta, sistemen saltzaileekin lotura estua duten konpainiak badirela kontuan hartuta, bereziki, ESIaren bitartez banatzen diren bidaien zerbitzuetan gerta daitezkeen jardun diskriminatzaileak eta merkatuko lehiakortasunaren aurkako jarduerak kontrolatuko ditu.

(20) Erregelamendu honek ez du baztertzen Tratatuako 81. eta 82. artikuluen aplikazioa. Erregelamendu honek lehiakortasunari buruzko arau orokorrak osatzen ditu, eta arau horiek lehiakortasuna kaltetzen duen kasuetan dira aplikatzekoak; hala nola, lehiakortasuna babesteko jokabideak ez errespetatzea edo nagusitza-posizioagatiko gehiegikeriak.

(21) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 1995eko urriaren 24an emandako 95/46/EE zuzentarauak arautzen du pertsona fisikoaren babesa, datu pertsonalak tratatzearen eta datu horien zirkulazio askearen eremuan [6]. Zuzentarau hori datu pertsonalak tratatzearen eta datu horiek libreki zirkulatzearen aurrean pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da. Erregelamendu honetako xedapenek 95/46/EE Zuzentzaraua zehaztu eta osatzen dute, ESI baten jarduerari dagokienez.

(22) 2299/89/EEE Erregelamendua indargabetu behar da.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

### 1. ATALA

#### **ATARIKO XEDAPENAK**

##### *1. artikulua*

#### **Helburua eta aplikazio-eremua**

Erregelamendu hau aireko garraioak eskaintzen dituzten eta Erkidegoan eskaintzen diren edo Erkidegoan erabiltzeko eskaintzen diren erreserba-sistema informatizatuetan ("ESI") aplikatuko da.

Horrez gain, Erregelamendu hau aireko garraioekin batera eskaintzen diren trenbideko garraioen zerbitzuei ere ezarriko zaie ESIen aurkezpen orokorretan, baldin eta zerbitzu horiek Erkidegoan eskaintzen badira edo Erkidegoan erabiltzeko eskaintzen badira.

## 2. artikulua

### Definizioak

Erregelamendu honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- 1) "Garraio gaia": bidaiari bat aireportu batetik bestera edo tren geltoki batetik bestera garraiatzea.
- 2) "Aireko zerbitzu erregularra": ezaugarri hauek dituzten hegaldiak:
  - a) Hegaldi bakoitzean bezeroek banaka (zuzenean hegazkin-konpainian edo aitortutako agenteen bitartez) eros ditzaketen eserlekuak edota, karga edo posta garraiatzeko lekua egotea.
  - b) Hegaldia bi aireportu horien edo gehiagoren arteko trafikoa bermatzeko moduan antolatuta egotea:
    - argitaratutako ordutegi batera egokituz, edo
    - beren erregularutasuna edo maiztasuna tarteko, bistako serie sistematiko bat osatzen duten hegaldien bitartez.
- 3) "Tarifak": bidaiariak hegazkin-konpainiei, trenbideko garraioetako operadoreei, beren agenteei edo bestelako txartel-saltzaileei garraio-zerbitzuengatik ordaindu behar dizkieten prezioak eta prezio horiek aplikatzeko baldintzak; besteak beste, agentziei eta gainerako zerbitzu osagarriei egindako ordainketak eta haiei eskaintako baldintzak.
- 4) "Erreserba-sistema informatizatua" edo "ESI": sistema informatizatua, hegazkin-konpainia baten baino gehiagoren hegaldien ordutegien, plaza libreen, tarifen eta bestelako alderdien informazioa biltzen duena. Sistema horrek erreserbak egiteko eta txartelak igortzeko bitartekoak izan ditzake, harpidedunei horretarako aukera eskainiz gero.
- 5) "Sistemen saltzailea": ESIak ustiatzeaz edo merkaturatzeaz arduratzen diren enpresak eta enpresa horien filialak.
- 6) "Banaketarako bitartekoak": sistemen saltzaile batek eskaintzen dituen bitartekoak, hegazkin-konpainien eta trenbideko garraioko operadoreen zerbitzuen ordutegiari, libre dauden plazei eta tarifei buruzko informazioa emateko, eta erreserbak egiteko, txartelak igortzeko eta bestelako zerbitzuak eskaintzeko.
- 7) "Konpainia nagusia": zuzenean edo zeharka, bakarrik edo beste batzuekin lankidetzan, sistemen saltzaile baten kapitalean parte hartzen duen hegazkin-konpainia edo trenbideko garraioko operadore oro, eta haren kontrolpean dagoen hegazkin-konpainia edo trenbideko garraioko operadore oro. Parte-hartze horren ondorioz, konpainia edo operadore horrek zenbait eskubide izan ditzake, edo ordezkaritza izan dezake sistemen saltzailearen administrazio-kontseiluan, ikuskapen-kontseiluan edo bestelako zuzendaritza-organoren batean.
- 8) "Sistemen saltzaile baten kapitalean parte hartzea eta horren ondorioz eskubideak edo administrazio-kontseiluan, ikuskapen-kontseiluan edo bestelako zuzendaritza-organo batean ordezkaritza izatea": eskubideak edo sistemen saltzaile baten administrazio-kontseiluan, ikuskapen-kontseiluak edo bestelako zuzendaritza-organo batean ordezkapena izatea dakarren inbertsio bat, bakarrik edo beste batzuekin batera, sistemen saltzailearen jardueren kudeaketan eragin erabakigarria izateko eskubidea ematen duena.
- 9) "Kontrola": izatez edo zuzenbidez, bakarrik edo elkarrekin, enpresa batean eragin erabakigarria izateko aukera ematen duten eskubideak, kontratuak edo beste edozein bitarteko. Eragin hori eskubide, kontratu eta bitarteko hauei esker gauzatzen da bereziki:
  - a) enpresa baten aktiboen jabetza izatea, edo aktibo horiek guztiak edo horien zati bat erabiltzeko eskubideen bitartez;
  - b) enpresa baten organo baten eraketan, bozketetan edo erabakietan eragin erabakigarria izatea ahalbidetzen duten eskubideen edo kontratuen bitartez.
- 10) "Konpainia parte-hartzailea": bere garraio-zerbitzuak ESI baten bitartez saltzeko, sistemen saltzaile batekin akordio bat izenpetu duen hegazkin-konpainia bat edo trenbideko garraioko operadore bat.
- 11) "Harpideduna": konpainia parte-hartzaile bat ez den pertsona bat edo enpresa bat, bezero baten izenean aireko garraiorako edo harekin zerikusia duten zerbitzuetarako erreserba bat egiteko, sistemen saltzaile batekin duen kontratuari jarraiki, ESI bat erabiltzen duena.

12) "Aurkezpen nagusia": denbora-tarte jakin batean bi hirien arteko garraio-zerbitzuei buruzko datuen aurkezpen orokor eta inpartziala.

13) "Txartela": garraiorako eskubidea ematen duen agiria, edo papera ez den beste euskarri bat erabiliz, hegazkin-konpainia batek, trenbideko garraio-eragile batek edo aitortutako agente batek egindako agiria.

14) "Konbinatutako produktuak": garraioak eta garraioen osagarri ez diren beste zerbitzu batzuk lotzeko alde zuzeneko konbinazioak, guztientzat prezio berean eskaintzen direnak.

15) "Erreserba-eskubideak": ESIek eskaintzen dituzten zerbitzuak ordaintzeko hegazkin-konpainiek sistemen saltzaileei ordaindutako prezioa.

## 2. ATALA

### SISTEMEN SALTZAILEENTZAKO JOKABIDE-ARAUAK

#### 3. artikulua

##### **Garraio-zerbitzuak ematen dituztenekiko harremanak**

1. Sistemen saltzaileek ezingo dute:

a) bidezkoak edota arazoizkoak ez diren baldintzarik jarri konpainia parte-hartzaileekin sinatzen dituzten kontratuetan, ezta konpainia parte-hartzaileei, beren izaera edo erabilera komertzialak kontuan hartuta, ESIn duten parte-hartzearekin zerikusirik ez duten baldintza osagarriak hartzeko eskatu ere.

b) ESIn parte hartu nahi duten konpainientzako baldintzarik ezarri, baldintza horien ondorioz, aldi berean beste sistema bateko kide diren konpainiek edo bestelako ordezkoko erreserba-sistemak erabiltzen dituztenek, hala nola internet bidez erreserbak egiteko norbere sistemak eta dei-zentroak erabiltzen dituztenek, ezin badute ESIn parte hartzea izan.

2. Sistemen saltzaileek kontu eta ardura handiz bildu eta prozesatuko dituzte konpainia parte-hartzaileek emandako datu guztiak. Horretarako muga bakarrak konpainia parte-hartzaileak hautatutako bilketa-metodoaren mugak berak izango dira.

3. Hegazkin-konpainia batek edo trenbideko garraio-eragile batek sistemen saltzaile baten kapitalean zuzenean edo zeharka parte hartzen badu edo, sistemen saltzaile batek hegazkin-konpainia baten edo trenbideko garraio-eragile baten kapitalean parte hartzen badu, sistemen saltzaileek informazio hori jakinaraziko dute, beste moduren baten zabalduz ez bada.

#### 4. artikulua

##### **Banaketarako bitartekoak**

1. Sistemen saltzaileek ezin dute datuak bildu edo prozesatzeko prozedura berezirik, banaketarako bitartekorik, edo horien aldaketarik erreserbatu konpainia batentzako edo batzuentzako, ezta beren konpainia nagusientzako ere. Banaketarako bitartekoetan, eta datuak bildu eta prozesatzeko prozeduretan aldaketarik eginez gero, aldaketa horiei buruzko informazioa konpainia parte-hartzaile guztiei jakinaraziko diete sistemen saltzaileek.

2. Sistemen saltzaileen ardura da beren banaketarako bitartekoak modu argi eta egiaztagarrian eta gutxienez software bitartez, edozein konpainiaren inbentario probatuarengandik eta beren kudeaketarako eta merkaturatzerako bitartekoengandik bereizita azaltzea.

#### 5. artikulua

##### **Aurkezpenak**

1. Sistemen saltzaileek aurkezpenen nagusi bat edo gehiago eskainiko dituzte beren ESIn bitartez egiten den transakzio bakoitzeko. Aurkezpen horietan sistemetan parte hartzen duten konpainiek emandako datuak bilduko dira, modu neutral eta osoan, inolako diskriminaziorik edo alderdikieririk gabe. Informazioa ordenatzeko irizpideak ez dira zuzenean edo zeharka konpainiekin zerikusia duten faktoreen arabera ezarriko eta sisteman parte hartzen duten konpainia guztietan inolako bereizkeriarik gabe aplikatuko dira. Aurkezpen nagusiak ez du bezeroa nahastuko, erraz eskuratu ahal izango da, eta I. eranskinean xedatutako arauak beteko ditu.

2. ESIEk kontsumitzaileei ematen dien informazioari dagokionez, kontsumitzaileak lehentasunik adierari ezean, harpidedunek aurkezpen neutral bat erabiliko dute 1. paragrafoan ezarritakoari jarraiki. Lehentasunen bat adieraziz gero, kontsumitzaileak beste aurkezpen bat erabili ahal izango du.

3. 2005eko abenduaren 14ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2111/2005/EE Erregelamenduari [7] jarraituz ustiakarako debekuaren menpe dauden hegazkin-konpainien hegaldiak argitasunez eta zehaztasunez identifikatu behar dira aurkezpenean. Aipatutako erregelamendua Erkidegoan ustiakarako debekua duten hegazkin-konpainien Erkidegoko zerrenda ezartzeari eta bidaiariak, konpainia operadoreari dagokionez, jaso beharreko informazioari buruzkoa da.

4. Sistemen saltzaileek irudi zehatz bat jarriko dute ESIaren aurkezpenean. Erabiltzaileentzat identifikagarria izan behar duen irudi horren helburua, 2111/2005/EE Erregelamenduko 11. artikuluari jarraiki, hegazkin-konpainia operadorearen identitateari buruzko informazioa eskaintzea da.

5. Artikulu hau ez zaie hegazkin-konpainiek, trenbideko garraioako operadoreek, hegazkin-konpainia taldeek eta trenbideko garraioako operadoreek beren bulegoetan, salmentarako mahaietan edo beren interneteko orrialdeetan erabiltzen duten ESIari aplikatuko.

#### *6. artikulua*

### **Harpidedunekiko harremanak**

1. Sistemen saltzaileek ez dituzten bidezkoak ez diren baldintzak edo arrazoirik gabeko baldintzak ezarriko harpidedunekin sinatzen dituzten kontratuetan, esate baterako ez diete beste edozein sistema erabiltzea debekatuko. Horrez gain, ez diete harpidedunei beren ESIaren harpidetzarekin zerikusirik ez duen baldintza osagarriarik onarraziko, eta ez dituzte harpidedunak tresna teknikoen edo logikoen eskaintzak onartzera behartuko.

2. Harpideduna gutxienez 50 pertsonari lana ematen dien enpresa autonomo bat bada, eta bere balantzeak ez baditu guztira 10 milioi euro gainditzen, sistemen saltzailearekin duen kontratua eten ahal izango du gehienez hiru hilabete lehenago jakinarazten badio. Hala ere, kontratua ezingo da lehen urtea igaro baino lehen eten. Hori gertatuz gero, sistemen saltzaileak kontratua etetearekin zerikusia duten gastuak berreskuratzeko eskubidea baino ez du izango.

#### *7. artikulua*

### **Datu informatiko komertzialen zintak ("MIDT")**

1. Sistemen saltzaileek merkaturatzeari, erreserbei eta salmentei dagozkien datuak zabal ditzakete, datu horiek arreta handiz eta sisteman parte hartzen duten konpainia guztien artean zabaltzen badira, baita konpainia nagusien artean ere. Datu horiek sisteman parte hartzen duten konpainia eta harpidedun guztiak har ditzakete kontuan eta, aldez aurretik hala eskatuz gero, horiek guztiak kontuan hartu beharko ditu.

2. Sisteman parte hartzen duten konpainiek ez dituzte datu horiek erabiliko harpidedunaren erabakian eragiteko.

3. Datuak Erkidegoko harpidedun batek ESIa erabiltzearen ondorioz lortu badira, harpidedunak eta sistemen saltzaileak datu horiek erabiltzeko baldintzak hitzartu ezean, ez da harpidedunaren zuzeneko edo zeharkako identifikazioa adieraziko. Xedapen hau sistemen saltzaileek hirugarren pertsoneri datu horiek jakinarazten dizkietenean aplikatuko da, datuak fakturak kitzatzea ez den beste zerbaitezarako erabiltzen badira.

4. Jendearen eskura jarriko da harpidedunek eta saltzaileek MIDTei dagokienez egindako akordio oro.

#### *8. artikulua*

### **Tratu baliokidea hirugarren herrialdetan**

1. Erkidegoa edo estatu kideak alderdi diren nazioarteko hitzarmenak betetzekoak izango diren arren, hirugarren herrialderen bateko sistema-saltzaileek ez badie ematen Erkidegoko hegazkin-konpainiei, Erregelamendu honetan biltzen diren gaiei dagokienez, hirugarren herrialde horretakoei ematen dien tratuaren tratu baliokidea, Batzordeak eskumena izango du Erkidegoan zerbitzu-egoeran dauden sistema-saltzaileei eskatzeko hirugarren herrialde horietako aire-konpainiei tratu jakin bat emateko; Erkidegoko aire-konpainiek hirugarren herrialde horretan jasotzen duten tratuaren tratu baliokidea, hain justu.

2. Batzordeak ikuskatuko du hirugarren herrialdeetan sistemen saltzaileek Erkidegoko hegazkin-konpainiak bidezkoak ez den moduan tratatzen dituzten, edo konpainia guztiak modu berean tratatzen dituzten. Estatu kide batek hala eskatuz gero edo Batzordeak hala erabakiz gero, hirugarren herrialdeetako ESIEk Erkidegoko hegazkin-konpainiekiko dituzten bidegabeko jokabideak iker ditzake Batzordeak. Bidegabeko jokabide hori frogatuz gero,

Batzordeak egoeraren berri emango die estatu kideei eta alderdi interesatuei, eta beren oharrak egiteko eskatuko die. Horrez gain estatu kideetako adituekin bilera bat ere antola dezake.

### 3. ATALA

#### **GARRAIO-ZERBITZUAK ESKAINTZEN DITUZTENENTZAKO PORTAERA-ARAUAK**

##### *9. artikulua*

#### **Sisteman parte hartzen duten konpainiek emandako datuak**

Sisteman parte hartzen duten konpainiek eta datuak erabiltzen dituzten bitartekariak ESI bati jakinarazitako datuak zehatzak direla eta datu horiei esker sistemen saltzaileak I. eranskinean xedatutakoak bete ditzakeela bermatuko dute.

##### *10. artikulua*

#### **Konpainia nagusientzako arau zehatzak**

1. Bigarren atalean ezarritako elkarrekikotasunari jarraiki, konpainia nagusiek ezingo dute jarrera bidegaberik izan ESI lehiakide batekiko. Hori dela eta, konpainia nagusiek ezingo diote ESI bati ukatu beren hegaldien ordutegiari, beren garraio-zerbitzuen tarifei edo zerbitzu horietan libre dauden plazei buruzko informaziorik, ezingo dute galarazi informazio hori ESI lehiakide baten bitartez zabaltzea eta ezingo diote uko egin ESI lehiakide baten bitartez konpainia horrek bere ESIan eskaintzen dituen garraio-produktuetarako egindako erreserbak onartzeari edo baieztatzeari. Konpainia nagusiak beren tarifekin eta baldintzekin bat datozen erreserbak onartzera eta baieztatzerara behartuta daude.

2. ESI lehiakide batek ezingo dio uko egin konpainia nagusi batek eskaintzen dituen garraio-produktuei dagozkien ordutegiari, tarifei eta libre dauden eserlekuei buruzko informazioa eskaintzeari, eta datuak biltzerakoan eta prozesatzerakoan edozein merkatutan dituzten bezero eta harpidedunei eskaintzen dieten arreta eta kontu bera eskainiko diete. Horretarako muga bakarrak hegazkin-konpainiek hautatutako bilketa-metodoak ezarritakoak izango dira.

3. Horri dagokionez, konpainia nagusiek ez dute kostuen kargu egin beharko, baina eskaintzen diren datuei eta onartutako erreserbei dagozkien gastuak beregain hartu beharko dituzte. ESI bati 1. paragrafoan ezarritakoari jarraiki egindako eta onartutako erreserba batengatik ordaindu beharreko eskubideak, ESI horrek berak mota horretako transakzioetarako gainerako konpainia parte-hartzaileei aplikatzen dizkien berberak izango dira.

4. Konpainia nagusiek ez diote beren ESIaren erabilerari mesede egingo, harpidedunari ESI jakin bat erabiltzeagatik komisioak edo pizgarriak eskainiz, edo bere garraio-produktuen salmenta hobetzeko disuasio-neurriak ezarritik.

5. Konpainia nagusiek ez diote beren ESIaren erabilerari mesede egingo, harpidedunari salmenta zuzenerako edo zeharkako salmentarako, edo zuzenean edo zeharka ematen dioten garraio-produktu baterako txartelen igorpenerako, ESI jakin bat erabiltzeko eskatuz.

### 4. ATALA

#### **DATU PERTSONALEN BABESA**

##### *11. artikulua*

#### **Datu pertsonalen bilketa, tratamendua eta horiek eskuratzeko bideak**

1. Garraio-produktuekin zerikusia duten erreserbak egiterakoan edo txartelak igortzerakoan bildutako datu pertsonalak jarduera horiekin bateragarriak diren helburuetarako soilik erabiliko dira. Datu horiek tratatzerakoan, sistemen saltzailea izango da datuen tratamenduaren arduraduna, 95/46/EE Zuzentarauko 2. artikuluko d) idatz-zatian ezarritakoari jarraiki.

2. Interesdunak sinatzen dituen kontratuak egikaritzeko beharrezkoa denean, edo interesdunak hala eskatuta aplikatzen diren kontratuen aurreko neurrietan soilik tratatuko dira datu pertsonalak.

3. 95/46/EE Zuzentarauko 8. artikuluan aipatzen diren kategoria berezietan dagoen datu horiek interesdunak, informazio egokia jaso ondoren, hori erabiltzeko baimen berariazkoa ematen badu soilik erabiliko dira.

4. Sistemen saltzailearen kontrolpean dagoen norbanakoen erreserbei buruzko informazioa biltzean kontuan izan behar da erreserba horren azken elementua egikaritzen den unetik 72 ordu igaro baino lehen bildu behar dela, ezingo dela informazio hori on line eskuratu, eta hiru urte igaro baino lehen suntsituko direla. Datu horiek fakturazioari buruzko eztabaidak argitzeko soilik erabil daitezke.

5. Sistemen saltzaile batek komertzializazioari, erreserbei eta salmentei buruz emandako datuetan ez da aipatuko pertsona fisikoen edo pertsona horiek ordezkatzeko dituzten erakundeen edo enpresen identifikazio zuzenik, ezta zeharkakorik ere.

6. Aldez aurretik hala eskatuz gero, harpidedunak sistemen saltzailearen izena eta helbidea, datuen tratamenduaren helburua, datu pertsonalak gordeko diren epea eta titularrak datu horiek lortzeko eskura dituen baliabideak jakinaraziko dizkio kontsumitzaileari.

7. Interesdunak datuak modu eraginkorren eta doan eskuratu ahal izatea bermatuko da, modu horretara interesdunak bere datuak ikusi ahal izango ditu sistemen saltzaileak edo harpidedunak bildu dituen kontuan izan gabe.

8. Artikulu honetan aitortutako eskubideak 95/46/EE Zuzentarauan ezarritako interesdunen eskubideen, beren aplikaziorako hartutako xedapen nazionalen eta Erkidegoak egindako nazioarteko akordioen xedapenen osagarri dira.

9. Erregelamendu honetako xedapenek 95/46/EE Zuzentzaraua zehaztu eta osatzen dute, 1. atalean aipatutako eragina izan dezan. Kontrakorik ezarri ezean, zuzentzarau horretako definizioak aplikatuko dira. ESI baten jardueretan datu pertsonalen tratamenduari buruzko artikulu honetako xedapen zehatzak ezartzen ez badira, Erregelamendu honez gain, aplikatzekoak izango dira aipatutako zuzentzarauko xedapenak, estatu kideek horiek aplikatzeko ezarritako xedapenak, eta Erkidegoa alderdi den nazioarteko hitzarmenetako xedapenak.

10. Sistemen saltzaile batek hainbat motatako datu-baseak ustiatzen dituenean, hala nola ESI bat edo hegazkin-konpainientzako gune bat, neurri teknikoak eta antolakuntza-neurriak hartuko dira, datu-baseen arteko loturaren bitartez datuen babeserako arauak hauts ez daitezzen, eta datu pertsonal horiek, biltzerakoan zuten helburua betetzeko soilik erabil daitezzen.

## 5. ATALA

### IKUSKAPENA

#### 12. artikulua

#### **Auditorea eta txosten ikuskatua**

1. Sistemen saltzaile orok, lau urtez behin eta Batzordeak hala eskatzen duen bakoitzean modu independentean egindako txosten ikuskatua aurkeztu beharko du. Txosten horretan bere jabetza-egitura eta gobernantza-eredua zehaztuko dira. Txosten ikuskatu horri dagozkion gastuak sistemen saltzaileak hartuko ditu bere gain.

2. Auditorearen izendapena baieztatu baino lehen, saltzaileak auditore hori zein den jakinaraziko dio Batzordeari. Batzordeak izendapenak eragozteko ahalmena du eta, bi hilabeteko epean eta auditoreari, sistemen saltzaileari eta bidezko interesa duela frogatzen duen beste edozein alderi kontsultatu ondoren, auditorea ordezkatu behar den edo ez erabakiko du.

## 6. ATALA

### ARAU-HAUSTEAK ETA ISUNAK

#### 13. artikulua

#### **Arau-hausteak**

Batzordeak, ofizioz edo salaketa bat tarteko, erregelamendu honi dagokion arau-hausteren bat gertatu dela frogatuz gero, horrekin zerikusia duten enpresa edo elkartei arau-hauste horrekin amaitzeko aginduko die erabaki baten bitartez. Erregelamendu honi dagozkion balizko arau-hausteei buruzko ikerketek kontuan izango dituzte balizko ikerketa baten emaitzak Tratatuaren 81. eta 82. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

#### 14. artikulua

Ikerketa-eskumenak



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Erregelamendu honetan xedatutako egitekoak gauzatzeko, Batzordeak, erabaki baten bitartez edo eskaera baten bitartez, enpresei edo enpresen elkarteei beharrezko irizten duen informazio guztia eska diezaieke, bereziki 4., 7., 10. eta 11. artikuluetan lantzen diren gaiei dagokienez, auditoria horietan biltzen den informazioa, eta baita auditoria zehatzei buruzkoa ere.

### *15. artikulua*

#### **Isunak**

1. Enpresa batek edo enpresa-elkarte batek berariaz edo axolagabekeriaren ondorioz Erregelamendu honetako arauak hautsiz gero, batzordeak sozietatearen aurreko urtaldiko negozio-bolumenen guztizko kopuruaren %10era bitarteko isunak ezar ditzake, erabaki baten bitartez.
2. Enpresa batek edo enpresa-elkarte batek berariaz edo axolagabekeriaren ondorioz zuzena ez den informazioa edo osatu gabeko informazioa emanez gero, edo informazio hori 14. artikuluan xedatutakoari jarraiki aurkeztutako eskaerentzako ezarritako epea igaro ondoren emanez gero, Batzordeak sozietatearen aurreko urtaldiko negozio-bolumenen %1era bitarteko isunak ezar ditzake.
3. Isun horien kopurua zehazteko, arau-haustearen larritasuna kontuan hartzeaz gain, arau-hauste horren iraupena ere kontuan hartuko du.
4. Isunek ez dute izaera penala izango.
5. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak jurisdikzioko eskumen osoa izango du Batzordeak ezarritako isun bat jartzeko hartutako erabakiari egindako errekurtsioei dagozkien erabakiak hartzeko. Isuna bertan behera uzteko, gutxitzeko edo handitzeko eskumena izango du.

### *16. artikulua*

#### **Prozedurak**

1. Hamahirugarren eta hamabosgarren artikuluetan xedatutakoari jarraiki erabakiak hartu baino lehen, Batzordeak kargu-orri bat bidaliko die enpresei edo enpresen elkarteei, eta beren oharrak idatziz eta, hala eskatuz gero, entzunaldi batean aurkezteko aukera emango die.
2. Batzordeak ez du lanbide-sekretuak babestutako eta Erregelamendu hau aplikatzearen ondorioz lortutako informaziorik zabalduko.  
  
Erregelamendu honetan ezarritakoa betetz, Batzordeari informazioa ematen dion pertsona orok argi azaldu beharko ditu bere arrazoiak, zer material jotzen duen konfidentzialtat, eta Batzordeak ezarritako data baino lehen, aurreko informaziotik banatutako bertsio ez-konfidentzial bat aurkeztuko du.
3. Batzordeak, esku artean duen informazioa aztertu ondoren, salaketa bat egiteko adina arrazoi ez duela erabakiz gero, bere arrazoiak jakinaraziko dizkio salaketa egin duen pertsonari eta hark bere oharrak idatziz aurkeztu ahal izateko epe bat ezarriko du.  
  
Salaketaren egileak bere oharrak Batzordeak ezarritako epearen baitan aurkeztuz gero, eta idatziz aurkeztutako alegazio horiek salaketaren hasierako ebaluazioa aldatzen ez badute, Batzordeak salaketa hori bertan behera utziko du erabaki baten bitartez. Salaketa jarri duen pertsonak ez badu alegaziorik aurkezten Batzordeak ezarritako epearen baitan, salatzaileak salaketa kendu duela ulertuko da.  
  
Batzordeak kargu-orria bidaltzen duenean, salaketa jarri duen pertsonari kargu-orri horren bertsio ez-konfidentzial bat helaraziko dio eta salatzaileak bere alegazioak idatziz aurkeztu ahal izateko epe bat ezarriko du.
4. Aldez aurretik hala eskatuz gero, Batzordeak espedientea eskuratzeko bidea emango die kargu-orriaren ageri diren aldeei eta salaketa egin duen pertsonari. Espedientea eskuratzeko aukera kargu-orriaren jakinarazpena egin ondoren emango da. Espedienteak lortzeko eskubideak ez du bestelako sekretu komertzialak, informazio konfidentzialak ezta Batzordearen barne-dokumentuak lortzeko eskubiderik emango.
5. Beharrezko iritziz gero, Batzordeak beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen testigantzak entzun ditzake.

### 7. ATALA

## **AZKEN XEDAPENAK**

### *17. artikulua*

#### **Indargabetzea**

1. 2299/89/EEE Erregelamendua indargabetzen da.
2. Indargabetutako Erregelamenduari egindako erreferentziak zuzentarau honi egindakotzat hartuko dira, II. eranskinean jasotako korrespondentzia-taulari jarraiki.

### *18. artikulua*

#### **Berrikuspena**

1. Batzordeak Erregelamendu honen aplikazioa kontrolatuko du aldizka, eta horretarako beharra izanez gero, 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz, ikuskapen zehatzen laguntza izango du. Diskriminaziorik eza eta ESIn zerbitzuek merkatuan duten lehiakortasun leiala bermatzeko duen eraginkortasuna arautuko du, bereziki, erregelamendu honek.
2. Batzordeak, beharrezkoa izanez gero, 8. artikuluaaren aplikazioari buruzko informazioa emango die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Informazio hori hirugarren herrialdeek emandako tratu baliokideari buruzkoa izango da, eta baldintza diskriminatzaileak gutxitzeko neurri egokiak proposatuko ditu. Neurri horiek izan daitezke, bestek beste, Erkidegoak eta hirugarren herrialdeek aireko garraioaren alorrean aldebiko hitzarmenak izenpetzea edo indarrean dauden hitzarmenetan aldaketak egitea.
3. Gehienez ere 2013ko martxoaren 29an Erregelamendu honen aplikazioari buruzko txosten bat egingo du Batzordeak, eta bertan, Erregelamendu hau mantentzeko, aldatzeko edo indargabetzeko beharra aztertuko da.

### *19. artikulua*

#### **Indarrean jartzea**

2009ko martxoaren 29an jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak dira, eta Estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon emana, 2009ko urtarrilaren 14an.

*Europako Parlamentuaren izenean*  
*Presidentea*  
H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean*  
*Presidentea*  
A. VONDRA

[1] C 224 EO, 2008.8.30ekoa, 57. or

[2] C 233 EO, 2008.9.11koa, 1. or

[3] Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko irailaren 4koa (oraindik Aldizkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko abenduaren 16koa.

[4] L 309 EO, 1989.7.29koa, 1. or.

[5] L 293 EO, 2008.10.31koa, 3. or.

[6] L 281 EO, 1995.11.23koa, 31. or.

[7] L 344 EO, 2005.12.27koa, 15. or.

## ANEXO I

**NORMAS APLICABLES A LAS PRESENTACIONES PRINCIPALES**

1. Si los precios se muestran en la presentación principal o si se opta por una ordenación basada en los precios, estos deberán incluir las tarifas y todos los impuestos, tasas, recargos y derechos aplicables que deba pagar el comprador a la compañía aérea o al operador de transporte ferroviario y que sean inevitables y previsibles en el momento de la presentación.
  2. No se harán discriminaciones entre los distintos aeropuertos o estaciones de ferrocarril de una misma ciudad al establecer y seleccionar los productos de transporte para pares de ciudades que se incluyan en una presentación principal.
  3. Se identificarán claramente los vuelos que no correspondan a servicios aéreos regulares. Se concederá a los consumidores, previa solicitud, la posibilidad de disponer de una presentación principal que se limite exclusivamente a los servicios regulares o a los servicios no regulares.
  4. Se identificarán claramente los vuelos con escalas.
  5. Cuando efectúe los vuelos una compañía aérea distinta de la indicada por el código de designación de la compañía, deberá especificarse claramente el operador real del vuelo. Este requisito se aplicará en todos los casos, excepto en lo que se refiere a acuerdos *ad hoc* a corto plazo.
  6. La información relativa a productos combinados no aparecerá en la presentación principal.
  7. A elección del abonado, se ordenarán las opciones de viaje en la presentación principal bien por tarifas o en el orden siguiente:
    - i) opciones de viajes directos ordenadas por horario de salida,
    - ii) todas las demás opciones de viaje ordenadas por duración total del viaje.
  8. Excepto por lo que respecta a lo establecido en el punto 10, ninguna opción de viaje aparecerá más de una vez en cualquier presentación principal.
  9. Cuando las opciones de viaje se ordenen de acuerdo con lo dispuesto en el punto 7, incisos i) y ii), y cuando se ofrezcan en el SIR servicios de trenes para los mismos pares de ciudades, en la primera pantalla de la presentación principal figurará al menos el primero de los servicios de tren o de los servicios aéreo-ferroviarios.
  10. Cuando las compañías aéreas operen con arreglo a acuerdos de código compartido, cada una de las compañías aéreas afectadas-no más de dos-podrá tener una presentación separada en la que se utilice su código de designación de la compañía. Cuando estén implicadas más de dos compañías aéreas, la designación de las dos compañías corresponderá a la compañía que realmente efectúe el vuelo.
-

## ANEXO II

## TABLA DE CORRESPONDENCIAS

| Reglamento (CEE) n° 2299/89     | Presente Reglamento                   |
|---------------------------------|---------------------------------------|
| Artículo 1                      | Artículo 1                            |
| Artículo 2                      | Artículo 2                            |
| Artículo 3, apartados 1 y 2     | —                                     |
| Artículo 3, apartado 3          | Artículo 3, apartado 1                |
| Artículo 3, apartado 4          | Artículo 4, apartado 1                |
| Artículo 3 bis                  | Artículo 10, apartados 1 y 3          |
| Artículo 4, apartado 1          | Artículo 9                            |
| Artículo 4, apartado 2          | —                                     |
| Artículo 4, apartado 3          | Artículo 3, apartado 2                |
| Artículo 4 bis, apartados 1 y 2 | Artículo 4, apartado 1                |
| Artículo 4 bis, apartado 3      | Artículo 4, apartado 2                |
| Artículo 4 bis, apartado 4      | —                                     |
| Artículo 5                      | Artículo 5                            |
| Artículo 6                      | Artículos 7 y 11                      |
| Artículo 7                      | Artículo 8                            |
| Artículo 8                      | Artículo 10, apartados 4 y 5          |
| Artículo 9                      | Artículo 6                            |
| Artículo 9 bis                  | Artículo 5, apartado 2, y artículo 11 |
| Artículo 10                     | —                                     |
| Artículo 11                     | Artículo 13                           |
| Artículo 12                     | Artículo 14                           |
| Artículo 13                     | Artículo 14                           |
| Artículo 14                     | Artículo 16, apartado 2               |
| Artículo 15                     | Artículo 14                           |
| Artículo 16                     | Artículo 15, apartados 1 a 4          |
| Artículo 17                     | Artículo 15, apartado 5               |
| Artículo 18                     | —                                     |
| Artículo 19                     | Artículo 16, apartados 1 y 5          |
| Artículo 20                     | —                                     |
| Artículo 21                     | —                                     |
| Artículo 21 bis                 | —                                     |
| Artículo 21 ter                 | —                                     |
| Artículo 22                     | Artículo 11                           |
| Artículo 23                     | Artículo 18                           |
| Anexo I                         | Anexo I                               |